

Mitxelena, K. (1961-1977): "Azentu modernoa eta zaharra"

1. Azentu modernoa

Silaben arteko intentsitate, garaiera eta iraupenaren aldea oso txikia eta antzematen zaila. Hitzaren posizioaren arabera bilakaera bat edo beste hotsek: hitz hasieran, barnean edo bukaeran. Elementu atonoak egoteak hitz guztiz azentudunak egotea dakar. Ezin da eremu bakarreko azentua aztertu euskaraz, leku geografiko batetik bestera desberdintasun handiak.

Gipuzkeraz: hitzek esaldi barnean ez dute ia autonomiarik, ez dago hauek banatzen dituen azentu argirik.

Ekialdean (Erronkari, Zuberoa): hitz bakoitzak azentu bat hitza indibidualizatzen duena, azentu zaharra ekialde moderno tipikotik egongo litzateke.

Ezaugarri orokorrak:

- Galde perpausetan amaiera goranzkoa aurreko silaba beherakorraren ondoren.
- Hitz isolatuetan: amaierako bokal indartsua, altuagoa eta luzeagoa. Bisilaboetan diferentzia txikia eta hiru + silaboetan hasieran ere azentua (1. edo 2. silaban). Batzuetan azentuak balio espresiboa hartzen du (*gizóna* miresmen edo harridura; *útzí* eskakizuna, *utzí* agindua)
 - Altube: euskarazko hitz baten silaba bakoitza printzipioz bortitz eta azentuduna baina posizioak determinatua (IS eta P barruan)
 - Larramendi: haren arabera euskararen azentua ez dago hitzaren azken hiru silabetara mugatua, azken silabara baizik. Salbuespenak: -tzaile, -ago, -ke, -en... bukatzen direnek azken aurrekoan daramate. Deklinatzen den izenak tema nominalaren azken silaban azentua (*gizónak*, *gizónari*, *gizónarentzat*, *gizónengana*) Monosilabo eta bisilaboetan lehen silaban. Leku/pertsona izenak azentu askea.
- Aditza: burutuan lehen silaban (*dáukat*, *zéndukazun*) baina aurreko hitz bati loturik, hizketa azkarrean, azentua 1 edo 2 silaban (egin dítut, egin ditút, duzú, eztegú, badegú, ik didák, nik dakát...)

Euskal testuak eta euskalki ezberdinetako azentua:

- Mendebaldea: (B/A) absolutibo singularrean azken aurreko silaban azentua (*améa*, *echéa*, *cerúa*, *uría*, *alavéa*). Salbuespenak: *ederrá*, *gorpufá*, *alcandórea*. Numeralak oxitonoak (*irú*, *oguéy*), forma pertsonalak ere oxitonoak (*bacúst*, *eguitendót*, baina *iracúrtendot*). Baita, erdi mendebalde osoan azentuak bereizi singularra eta plurala erakusleetan (*onék*, *ónék*) eta zenbait izenetan (*gizonák*, *gizónak*)
- Zaldibia: izen guztiak sg: a eta pl: ac deklinatu gabe, kasua bereizteko azentua erabili.
- Goi nafarrera: Irun, Hondarribia eta Bortziriak. Gipuzkoa eta Lapurditik oso ezberdina, bokal azentudunaren luzapena zona honetako ezaugarria. (*onddá-rbi*, *abí-stu*, kus duzu, obrena)
- Zuberera: ezaugarri bereziak, gaztelerazko erromantzetik gertu. Azentuaren posizioa kontrakzio zaharraren erakusle.

2. Azentu zaharra (hipotesia)

Intentsitate automatikodun azentua: desadostasuna azentuaren posizioaren inguruan.

Hasperena eta azentua

Bi hauek uztartzen ditugunean, hauen arteko lotura zahar bati buruz ari gara, azentuaren ahultasuna hasperen faltarekin lotuta dagoelarik. H etimologikoa edo hasperena bokal arteko n baten galeratik dator. Adib: *criba*, *bahe* (zub.) < **bane* < *van* (errom) edo *orga* < **organa*.

Hasperena ez da hitz barruan edozein silabatan agertzen, hasieran edo bigarren silaban baizik. Maileguetan posizio batzuetan herskari hasperendunak daude latin edo dialekto erromanikoez herskari puruak zituzten tokietan (*bothere*), hitz hasieran badago beste hasperenik egotea eragozten du. Mailegu bisilabo askok ez dute hitz barneko herskari hasperendunik (*bake*, *mutu*, *neke*).

Hitz elkartuak:

- Erronkaria eta zuberera; normalean hitz elkartuetako bigarren elementuaren lehen silaba azentuatzen da. Hauetan, kontrakzioa dela eta monosilaboa izan ohi da azken elementua. Ezaugarri arkaikoa dela pentsa daiteke, garai batean dialekto guztien ezaugarria, baina hipotesi honek eragozpenak. *Hárri*-ren azentua zaharra balitz **mugaharri* eta **zedaharri* izan beharko lirateke. Ez zuen zertan desagertu *ahal* eta *ahari* mantendu badira.
- Lehen elementua monosilaboa duten hitz elkartuetan, hasperena bigarren elementuaren lehen bokalaren aurrean ohikoa: *uh-*, *zuh-*, *luh-* (*üh-*, *züh-*, *lüh-* zubereraz). –pe, –tasun atzizkien herskari hasperendu morfema monosilabo batekin elkartzean. Lehen elementua silaba batera murriztua geratu denean kontrakzioaren eraginez, hasperena agertuko da eta bigarren elementuak hasperena galdu.

Eboluzio dibergentearen ondorioz, hitz autonomoa eta hitz eratorriko azken elementua urrundu egin dira eta ondorioz euren identitate originala jada ez da ezagutzen: *ohi* < (**kohi*, **kóhi*, *-(*k*)oi).

H ez da ematen tema nominalaren eta atzizkiaren artean, ezta hauek barnealdean edota deklinabidean erroaren atzetik eta pertsona mar